


BALIOAREN ROPOSAMENA

Gure akademia ikasle guztietara bideratua egongo da. Diru-sarrera txikiak dituzten familiek izango dute lehentasuna, baina ez zaie gainerako ikasleei sarrera galaraziko.



Edozein mailatarako laguntzak emango dira Lehen Hezkuntzatik hasita Batxilergora bitarte. Ikasleek, nahi izanez gero, beraien materiala eraman dezakete: behar dituzten liburuak, koadernoak, idazteko materiala... baina gure akademian baliabide hauek guztiak eskuragarri jarriko ditugu ikasleek pisu gehiegi eramatea ekidinez.

Gela bakarria egongo da printzipioz, baina jende asko datorrela ikusiz gero, gela kopurua ere handitu egingo genuke. 15 pertsonako edukiera izango du gela bakoitzak. Ikasle bakoitzak neurtu beharko du astean zehar behar duen ordu kopurua, baina jakinaren gainean jartzen zaituztegu jasotako orduen arabera emango dela hilabete bukaerako ordainagiria. Horrez gain, online klaseak egongo dira nahi duenarentzat eskuragarri.



Astelehenik ostiralera arratsaldeetan 15:30etatik 19:30etara egongo da gure akademia martxan, baina azterketa garaian larunbatera arte luzatuko dugu, eskaria seguruenik handitu egingo baita.

Beraz, labur esateko, gure enpresa: laguntza akademia bat izango da, merkea, online klaseak emateko aukerarekin, materiala eskuragarri duena eta laguntza bereziak eskuragarri dituena. Baina honen guztiaren gainera, gure berezitasun handiena irakasleak ikasleak garela da. Honi esker, gure ikasle esperientziaz baliatuz, ikasleengana iristeko erraztasuna erakutsiko dugu.